

ek!

eta kitto!
euskara elkarteak

2025eko maiatzak 16 - 1354 zenbakia



MAIATZAK 23 GU ERE TANTAN

T. Etxebarria, 1
943 20 42 99

**Gehien
maite
duzuna
babestu!**
%50eko
DESKONTUA!

BIZI ASEGURUA

Informazio gehiago:
eukiseguros.com

EUKI

ASEGURU ARTEKARITZA

**Gure familia beti
babestuta egongo
den garantia**



IRAZABAL

clínica dental



Ainhoa Zulueta
Doktorea

Odontologian Lizentziatua.
Euskal Herriko Unibertsitatea.
Unibertsitate Aitua Aho Kirurgian,
Periodontozian, implantologian.
Leongo Unibertsitatea.
Diplomaturak Aho Kirurgian,
Bartzelonako Unibertsitatea.
Hortz-Estetikaren Diplomaturak
Madrilgo Unibertsitate Kompletuentzia.
Hortz-Estetikaren Diplomaturak
Autran Institutua, Bartzelona.
Etengabeko Formakuntza.
New York-eko Unibertsitatea.
Oklusioan Graduondoa.
Anibal Alonso Doktorea.

Irribarreetan adituak

Etor zaitez gu ezagutzera

Zure beharretara egokitutako finantziazio-planak

JARRAI IEZAGUZU

f Facebooken: Clínica Dental Irazabal **www.clinicairazabal.com**



IRAZABAL
clínica dental

Julian Etxeberria, 12 - 1 esk. - **20600 EIBAR**
Tel.: 943 20 85 52 - **www.clinicairazabal.com**

Jarraitu gaitzazu!

www.etakitto.eus



@etakitto



Musikari autodidakta, barrenetik irteten zaizkio abestiak Iker Sanzi. Musika Km0 lehiaketako irabazleetako bat izan da eta, ondorioz, lehen aldiz igo da oholtzara. Orain, Ibarkurutzeko Poesia eta Musika Gauan ikusteko aukera izango dugu.

eta kitto!
euskara elkarteak



ARGITARATZAILEA

...eta kitto! Euskara Elkartea

HELBIDEA

Urkizu, 11 - 20600 Eibar

TELEFONOAK

943 20 67 76 / 943 20 09 18

ASTEKARIAREN E-MAILAK

erredakzioa@etakitto.eus

komunikabideak@etakitto.eus

publizitatea@etakitto.eus

aldizkaria@etakitto.eus

ELKARTEAREN E-MAILAK

elkartea@etakitto.eus

normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA

Ana Aizpurua, Ekhi Belar, Ander

Fernandez, Jose Luis Gorostegi,

Silbia Hernandez eta Yanire

Sagredo

ADMINISTRAZIOA

Marisol Uriarte

KOORDINATZAILEA

Ana Aizpurua

ERREDAKZIO-BURUA

Silbia Hernandez

DISEINUA

Maku Oruezabal

MAKETAZIOA

...eta kitto! astekaria

HIZKUNTZA ARDURA

Maider Aranberri

PUBLIZITATEA

Ander Fernandez

TELEFONOAK

943 20 67 76

AZALA

Silbia Hernandez

BANAKETA-ARDURA

Idoia Labado

TIRADA

7.800 ale

INPRIMATEGIA

GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A

...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA

SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679

("...eta kitto!" k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)

Eibarko Udalak eta
Gipuzkoako Foru Aldundiak
lagundutako aldizkaria



Eskutitzak



Eskerrik asko Eskubaloiairen Jaia laguntzeagatik

Eibar Eskubaloi Taldearen izenean, bihotz-bihotzez esker-tu nahi dugu Eskubaloiairen Jaiaren antolaketa eta ospa-kizunean parte hartu duzuen guztioi. Egun zoragarri hau zuen laguntzari eta parte-hartzeari esker izan da posible.

Lehenik eta behin, jokalariei, familia, bolondres eta parte-hartzaile guztiak zoriondu nahi ditugu. Zuen ilusioa eta indarra funtsezkoak izan dira giro berezi hori sortzeko eta gure komunitatea are gehiago sendotzeko.

Gure babesle zaren Mek, Tekniker, Altuna y Uria, Loyola, Muelles Zaldúa eta Electricidad Perosanz-i eskerrik beroenak helarazi nahi dizkizuegu, zuen laguntzarik gabe ezinezkoa izango bailitzateke halako ekitaldi bat antolatzea. Zuen konpromisoa eta babesa eskertzen ditugu bihotzez.

Eibarko Udalari eta udal langileei ere jaialdi hau ospatzeko instalakuntza eta ekipamendu ezberdinak erabiltzen usteagatik, gure esker ona adierazi nahi diegu. Eskainitako espazioak ezin hobeak izan dira ekintza guztiak modu seguruan eta atseginean egiteko.

Eta jakina, gure eskerrik berezienak Ametsa eta Kalaka tabernei, Urkari eta Goma2 musika taldeei, Axel speakerra eta Javi Colmenero argazkilaritari. Zuen lankidetzaren eta eskuzabaltasuna ezinbestekoak izan dira giro goxo eta atsegina sortzeko.

Azkenik, hauek izan ziren Eskubaloi egunean egindako zozketaren zerbaki sarituak.

1. Saria. Oberena haragitegiak emandako urdaiazpikoa: 00940 zenbakia (erreserbako zenbakia 01267)

2. Saria. Nesken lehen taldeak sinatutako kamiseta: 03737 Zenbakia (erreserbako zenbakia 00910)

3. Saria. Mutilen lehen taldeak sinatutako kamiseta: 01503 zenbakia (erreserbako zenbakia 00915)

Eskerrik asko bihotz-bihotzez!

Eibar Eskubaloi Taldea

Hortik esanak



Faktore asko dira talentua erakartzea baldintzatzen dutenak eta, niretzat, soldatak eta etxebizitzaren prezioa dira benetan oztopo edo mugagarri nagusiak. Hizkuntza ere izan daiteke bat: euskara, gaztelera? Bakoitzaren egoeraren arabera. Seme-alabekin baldin badator eta beste hizkuntza batean ikasi badute, normalean ingelesez eskolatzen dituzte; horrek esan nahi du zientziaren eta teknologiaren munduan mugitzen dena erakartzeko guk ere eduki behar genukeela zerbitzu hori. Kutxabankeko presidentek hori adierazi eta malgutasuna behar genuela badio, bat nator ideia horrekin. Hori haratago eramaten badugu, ziur asko ez naiz ados egongo.

JUAN IGNACIO PEREZ IGLESIAS, Jaurilaritzako sailburua

Ez dut “La infiltrada” pelikula ikusi nahi izan. Arazo sortzailea iruditzen zait, batez ere giza mugimenduetan hainbeste polizia infiltrazio ematen den une honetan. Arriskutsua ikusten dut aginte-indarrei horrelako tokia eta legitimitatea eskaintzea. Egia esateko, Polizia ez dudalako gustoko. “Patria” ere ez nuen ikusi, badakidan arren lan bikaina egin duten aktoreak daudela bertan. Iaz rol zuzena izango nuen proiektu bati egin nion uko lehenengo aldiz, bertako testuinguru politikoa janzteko morboa besterik ez zuelako, gidoi guztiz lotsagarri batekin. Egiazkotasunik apenas zuen, fikzio hutsa bihurtzeraino, ia yanki ikutua-rekin.

JONE LASPIUR, aktorea

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

PIKOPASA→ Piku deshidratatua, sikatzen lagatakoa. “Pikopasiak ez desta egitten onik, ze azukre larregi dauka”.

Aurpegiko azala zimurrez beteta duena. “Agure pikopasia topau neban”.



Idurre Iriondo

Farmaziak

BARIXAKUA 16
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
ZAPATUA 17
EGUNEZ Mendinueta (Urkizu, 6)
DOMEKA 18
EGUNEZ Castaño (J. Etxebarria, 7)
ASTELEHENA 19
EGUNEZ Zulueta (San Agustin, 5)
MARTITZENA 20
EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 18)
EGUAZTENA 21
EGUNEZ Castaño (J. Etxebarria, 7)
EGUENA 22
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
BARIXAKUA 23
EGUNEZ Barandela (Z. Agirre, 4)

GAUEZ BETI, 2025ean,
Lekunberri (Isasi, 31)

Telefono jakingarriak

SOS deiak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udaltzaingoa	943 70 84 24
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Kirol Patronatoa	943 20 32 40
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	900 17 11 71
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Eibar Ospitalea	943 03 29 00
Mendaro ospitala	943 03 28 00
Anbulategia	943 03 25 00
Torrekoa	943 03 26 50
Errepideak	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	944 33 33 33
Lurraldebus	900 30 03 40
Pesa	900 12 14 00
Taxiak	943 20 30 71 / 943 20 13 25
Andretxea	943 54 39 38
Alkohol. Anon.	629 14 18 74
Al-Anon / Alateen	650 26 59 63
Grupo Egun Bat (Jokozale	
Anonimo eta Familiak)	699 37 75 20

Hildakoak

- Mertxe Garteiz Uriarte.
66 urte. 2025-05-08.
- Julia Arregi Etxebarria.
101 urte. 2025-05-10.
- Rosa Sanchez Martin.
63 urte. 2025-05-10.
- Leandro Luengo Claramunt.
87 urte. 2025-05-10.
- Jose Mari Bedaio Maguregi.
77 urte. 2025-05-11.
- Mari Carmen Nazabal Eizagirre.
81 urte. 2025-05-11.
- Angustias Blasco Ibañez.
89 urte. 2025-05-12.



'Guria erabili zeinke' kanpaina abiatu du Altxau Burua Eibarko taldeak

Altxau Burua taldeak adierazi dutenez, "gure helburu nagusia haur eta nerabeek smartphona erabiltzen hasteko adina ahal dugun guztia atzeratzea da, harik eta horrelako gailuak erabiltzeko prest egon arte". Horrela, haurrak babesteko neurri gisa abiatu dute *Guria erabili zeinke* ekimena.

Altxau Burua taldeko Naiara Sarrasketaren berbetan, "kanpaina Gipuzkoatik dator, eta herri askotan martxan dago. Bat egiten duten dendetan pegatina bat ipintzen dugu, haurrek eta nerabeek erraz identi-

fikatu dezaten. Horrela, gurasoei telefonoz deitzeko premia izanez gero, edo bestelako larrialdirik badaukate, denda horretara sartu eta deitzen lagako dietela jakinda, beraiek ere seguruago sentitzen dira". Kanpaina martxan dago izena eman duten saltokietan, eta pegatina identifikagarria ere ipini dute. Orain arte, 60 saltoki inguruk egin dute bat kanpainarekin. Bestalde, batzeko interesa izanez gero, eibar@altxaburua.eus helbidera idatzi daiteke, komertzioaren izena, arduradunarena eta telefonoa bidalita.

Ibaia garbitzera joateko irteera antolatu du Eibarko Baso Biziak elkarteak

Eibarko Baso Biziak taldeak erreak garbitzeko irteera antolatu du ekainaren 1erako. Azitaingo elizatik abiatuko dira, 10:00etan. Antolatzaileen berbetan, "jarduera egokia da haur zein helduentzat, baina uretako arropa eta katiuskak ekartzea komeni da". Izena emateko, eibarkobasobiziak@gmail.com helbidera mezua bidali behar da, maiatzaren 29a baino lehen, izen-bizenak, adina eta herria zehaztuz.



Hausnarketarako bideak zabaldu dituzte Islamiar Federakundearen Kongresuan

Euskal Herriko Islamiar Federakundeak Eibarren egindako 4. kongresuaren emaitzarekin pozik daude antolatzaileak. *Gizartea indartzeko presentzia aktiboa* izenburuari jarraituta, bi mahainguru egin zituzten zapatuan, komunitate islamiarreko ordezkarien eta Eibarko zein EAEko ordezkari instituzionalen parte-hartzearekin.

Lehenengoan herritarrek gaur egungo gizartean duten zeregin aktiboaz hausnartu zuten, eta bigarrenan komunitate musulmanaren ibilbideari buruzko hausnarketa egin zuten. Amaitzeko, Ahmed Elfar Filosofian doktoreak gidatutako *Gure gizatasuna, norantz?* hausnarketarako saioa egin zuten.



Lierni Fernandez eta Marta Ferre Egoaiziako kideak, Jon Iraola alkatearekin, 25 urteko ibilbidea ospatzeko egingo diren jardueren berri ematen. SILBIA HERNANDEZ

Bihar hasiko dira Egoaiziaren 25 urteko ibilbidea ospatzen

Erakundearen 25. urteurrena dela-eta, Egoaiziak urte guztian zehar martxan egongo den “EraldeIIBAR. 25 urte Hegoaldeko komunitateak eraikitzen, indartzen eta elkartzen eibartarren Kooperazio- eta elkartasun-zubien bitartez” izenburuko egitarau berezia antolatu du. Herriar guztientzat irekiak izango diren ekitaldien bidez, elkartasun-konpromisoa eta nazioarteko kooperazioa oinarri izan dituen mende laurdenak izan duen inpaktua erakustea da asmoa.

Egitarauarekin hasteko, bihar goizean ospatuko dute Bidezko Merkataritzaren Munduko Eguna, Untzaga plazan. *Iraganeko aztar-nak, etorkizuneko haziak: bidaia bat bidezko merkataritzan zehar* goiburuari jarraituta, 10:00etatik

14:30era bitartean bidezko merkataritzako produktuekin egingo dako dastaketak, haurrentzako tailerrak, otar solidarioen zozketa eta beste hainbat jarduera egongo dira.

Etiopiaren drama ikusarazten

Egitarauan aurrera eginez, ekainean Etiopian bizitzen ari diren egoera larria emango dute ezagutzera. Horretarako, *BUNA: Voces tras el Silencio* argazki-erakusketa ipiniko dute ikusgai Arrate Kultur Elkartean, ekainaren 2tik 27ra. Aurreratu dutenez, ekainaren 5ean egingo den inaugurazio-ekitaldia berezia izango da: “Kunom Hai-luk, Etiopian gurekin batera ari den 4yBIN GKEren zuzendaria etorriko da. *BUNA* dokumentala

Egoaizia Eibarko Gobernuz Kanpoko Erakundeak egitarau berezia prestatu du mende laurdeneko ibilbidea ospatzeko, eta horren aurkezpena egin dute aste honetan Lierni Fernandez eta Marta Ferre Egoaiziako kideek, Jon Iraola alkatearekin batera eman zuten prentsaurrekoan. Asteburu honetan hasiko da programazioa, Bidezko Merkataritzaren Munduko Egunaren harira antolatu duten ekitaldiarekin.

proiektatuko dugu, eta ondoren solasaldi irekia egingo da”. Amaieran Etiopiako produktuen dastaketa eta kafearen inguruko zeremonia egingo dira.

Urriaren 11n, berriz, 10. Kontsumo Arduratsu eta Ekologikoaren Azoka egingo da. Eta azaroaren 22an omenaldia egingo zaie 25 urte hauetan Egoaiziaren ondoan egon diren pertsona, kolektibo eta erakundeei.

Azpmarratu dutenez, Egoaiziak hasiera-hasieratik jaso du Eibar-ko Udalaren babesa, eta emaitza begi-bistan dago: urte hauetan 128 nazioarteko kooperazio- eta hezkuntza-proiektu baino gehiago abiatu ditu erakundeak, eta 109.880 pertsonari lagundu diete Perun, Kongoko Errepublika Demokratikoan, Etiopian, Kolonbian eta Hondurasen. Baina herrian bertan ere aritu dira: “Egoaiziak hausnarketarako eta aldaketarako bidea ireki du, kontsumo ardura-tsua, herritarren parte-hartzea, boluntariora eta kontzientzia kritikoa bultzatuz.



'Mariokerrak. Nola esan/izan bollera euskaraz' aurkeztuko dute astelehenean

Berdintasun Zerbitzutik-An-dretxetik kanpaina bateratu bat prestatu dute LGTBI+ Fobia-ren Aurkako Nazioarteko Eguna (maiatzak 17) eta LGTBI+ Kolektiboaren Askapenaren eta Harrotasunaren Nazioarteko Eguna (ekainak 28) aldarrikatzeko. Horren harira, astelehenean Amaia Alvarez Uria eta June Fernandez Casete egongo dira Andretxean, 18:00etan, *Mariokerrak Nola esan/izan bollera euskaraz* (Txal-

laparta 2023) aurkezten. Liburu horretan, eta Zinegoak elkarteak egindako proposamen bati tiraka, euskararen eta lesbianen komunitatearen ardatzak nola gurutzatzen diren aztertzen dute. Egileek diotenez, "bollera komunitatean hizkuntza-hegemonia pitzatu egin da azken urteotan, eta euskarak militantziarako duen ahalmen politikoa ontzat ematen da". Saioa herritar guztientzat zabalik egongo da.

Zabalik dago astelehenean hasiko den Urratsen Erronkan izena emateko epea

EAEko Jarduera Fisikoaren Orientazio Zerbitzua (SOAF) duten 50 udalerriren arteko lehia-keta birtuala, Mugiment Urratsen Erronka izenekoa, ospatuko da maiatzaren 19tik ekainaren 8ra bitartean, besteak beste Eibarren. Wellk aplikazio mugikorraren bidez garatuko da erronka, eta parte-hartzaile bakoitzak bere udalerriko orientazio zerbitzuarekin bat etorri hartuko du parte.

Horretarako, Wellk aplikazioa deskargatu, app-an izena eman, eta taldeetako batekin bat egin beharko da. Urratsak automatikoki erregistratuko dira. Parte hartzen dutenen artean hainbat sari banatuko dira, banaka zein taldeka. *Eibar Mogidu* Jarduera Fisikoaren Orientazio Zerbitzuak eta Udaleko Kirol Sailak eibartar guztiak animatu nahi ditu erronkan parte hartzera.

Berdintasunaren aldeko formazioa eta protokoloak kultur elkarteentzat

Gipuzkoako Foru Aldundiak, Kultura departamentuaren bitartez, prestakuntza-programa eta protokoloak egiteko programa bat abiatu du, lurralde osoko kultura-eragileei indarkeria matxistak eta haurren aurkako indarkeria prebenitzeko tresnak eskaintzeko. Ekimenak kultura-espazioak seguruak, inklusiboak eta indarkeriarik gabekoak izatea bermatu nahi du. Prestakuntza presentziala da eta bi bloketan egituratzen da, bakoitza ordubetekoa: bata indarkeria matxistari buruzkoa, eta bestea haurren aurkako indarkeriari buruzkoa. Bi adituk emango dute. "Indarkeriaren oinarritzko kontzeptuak haurren eta generoaren eskubideen ikuspegitik" gaiari buruzko prestakuntza saioak hainbat herritan egingo dituzte, eta astelehenean Eibarren egongo dira, 09:00etatik 11:00etara, Portaleko ikastaro gelan. Izena emateko kbulegoa@gipuzkoa.eushelbidera mezua bidali daiteke.

Goizane Alvarez Kulturako diputatuak ekimenaren garrantzia azpimarratu du: "Protokolo eta prestakuntza horiek askotan ikusezin geratzen diren indarkeriak identifikatzen laguntzen digute, baita horiei aurre egiteko tresnak sortzen ere".





Eibarko haurreskoletan plaza gehiago eskatzeko protesta egin zuten familiek

Herriko hainbat familia elkartu ziren aurreko asteko eguenean, udal-etxe aurrean, Eibarko haurreskoletan plaza gehiago eskatzeko. Izan ere, 0-2 urte bitarteko haurren gurasoak oso arduratuta daude “irailetik aurrera ume guztien erdia baino gehiago Eibarko haurreskoletan toki gabe geldituko delako”. Eibarko Udalak haurreskolarako bi lokal berri gaituko dituela iragarri zuen orain dela aste batzuk, umeentza-

ko 41 plaza gehiagorekin. Lokalak Jazinto Olaben eta Blas Etxeberrian (El Cascoko eraikinaren beheko lokaletako batean) egongo dira, eta obrak irailean hasiko dituzte. Udalaren kalkuluen arabera, abenduaren amaierarako bukatuta egotea espero dute. Beraz, epe horiek kontuan izanda, 0-2 urte bitarteko haur asko plaza barik egongo dira irailean eta, horren aurrean, kezka eta haserrea erakutsi zuten familiek.

AUTUAN

LORATEGIETAKO LANDAREAK BANATUKO DITU UDALAK EGUAZTENEAN

Neguko sasoian landatu ziren 700 bat lore banatuko ditu Udalak, doan, eguaztenean, 11:00etatik 13:00era (denak agortu arte), Untzagan (harmailen aldean). Banatuko dituztenen artean denetarik dago: krabelinak, biolak, pentsamenduak, bitxiloreak, mitxoleak, dragoi-muturrak... denak Eibarko lorategietatik ateratakoak. Interesa dutenei etxetik poltsa eramatea gomendatu dute. Eva Juez Ingurumeneko zinegotziak azpimarratu duenez, “jarduera honekin eibartarrek egindako eskaera bati erantzuten diogu, erretiratutako landareak berreskuratu nahi dituzte-eta”.



UDAKO bigarren eskuko AZOKA

31 MAIATZA 2025

EIBAR

Errebal Plazia: 10:00/14:00

Behar ez dituzun eta egoera onean dauden gauzak saltzeko. Eibarko elkarte, ikastetxe eta herritarrek har dezakete parte.

BI AUKERA:

- 1- Erreserbatu salmenta-postua (mahai bat) eta zuk saldu zure gauzak (aurrez erreserba egin behar da)
- 2- Laga zure objektuak gordailu-salmentan (10 gehienez) eta antolakuntzakoak arduratuko dira salmentaz. Ezin dira eraman arropa eta osagarriak, bolumen handiko altzariak... Egunean bertan eraman behar dira, 09:00etatik 10:00etara (ez dago izena eman beharrik)

Izena emateko epea: maiatzaren 19tik 27ra

TAILERRA

Osagarriak eta apaingarriak material birziklatuekin

11:30/14:00, Errebal Plazia (DOAN)

- 3-12 urteko haurrentzat
- Ordu erdikoak, bost txanda (11.30etik 13.30era)
- Plaza mugatuak / Hartu txanda egun berean

Giro ederra Letra Galegoen jaian

As Burgas Galiziako Etxearen eskutik, asteburu osoa bete zuten Dia das Letras Galegas jaiak ospatzeko antolatutako ekitaldiek. Barixakuan hasi eta domeka iluntzeraino, Galiziako gastronomiarekin batera musika eta dantzak izan ziren protagonista Urkizun. Urtero bezala, euskal kulturak Galiziakoarekin bat egin zuen domekan, Os Galaicos eta Kezka dantza taldeak elkarrekin egindako dantza erakustaldian, eta dantzari gazteenek Gipuzkoako hainbat dantza eskaini zituzten.

ARGAZKIAK: FERNANDO RETOLAZA /KEZKA DANTZA TALDEA





AURRE-MATRIKULA

 MAIATZAK 5etik 23ra



MERKATARITZA



ADMINISTRATIO
ETA
KUDEAKETA



JARQUERA
FISIKOAK
ETA KIROLAK



INFORMATIKA
ETA
KOMUNIKAZIOAK



IZENA EMAN

 943 89 92 11

www.uni.eus



Ofiziala herribidea 29
20080 Eibar, Gipuzkoa
943 89 92 11
eibartxak@uni.eus
www.uni.eus
@unibizkaia



IKASTETZE PUBLIKO OROAKO



LANBIDE
HEZIKETA
FORMACION
PROFESIONAL



Elkarlaneko Robotika

Lanbide Heziketako Espezializazioa

Kaupena: Rasturte bar

GOI MAILAKO heziketa zikloa amaitu ondoren, ikasi puntako teknologiarekin eta lortu zure lekua industria adimendunean!

AURRE MATRIKULA

Maiatzaren 23a arte

Informa zaitez!

 943 74 82 65

zikloak@imh.eus

www.imh.eus

BERRIA

ikasketa plana







...eta kitto! Euskara Elkarteko bazkideok!

Maiatzaren 23an, 19:00etan, Urkizuko iturrian elkartuko gara dagokigun tarte batetzeko. Ez ahaztu arropa urdina eta koadrodun zapia!

TANTANEZ TANTAN 2025

Euskararen olatua datorren barixakuan ailegatuko da Eibarko kaleetara

Maiatzaren 23an, gaur zortzi, ailegatuko da Eibarrera Tantan ez Tantan, bazterrak euskaraz bustiko dituen euskararen aldeko olatua. Euskalgintzako mahaia osatzen duten taldeek mimo handiz antolatu dute aurten ere euskararen aldeko ekimen hau, eta dei egiten die herritar guztiei bat egin dezaten Urkizu eta Untzaga elkartuko dituen giza katearekin: “Eskutik eskura euskaltzale guztion artean eramango dugu euskaraz eta ilusioz beteriko gantxilla”.

Datorren barixakuan arratsaldeko 19:00etan ekingo zaio Tantan ez Tantan bi urterik behin Eibarko euskalgintzako taldeek antolatzen duten ekimenari. Urkizuko iturrian gantxilla edo botijoa urez bete-eta, “eskuz esku eramango dugu Untzagaraino, euskararen olatua irudikatuz. Nik eman, zuk jasotzeko, niri ere eman egin didatelako, guztiona delako, gurea delako. Transmisio-katea gara gu eta horrela eutsi behar diogu euskarari, bete-betea”, diote antolatzaileek.

700 lagun ibilbidea betetzeko

Ibilbidea betetzeko Urkizuko iturritik Untzagara arteko ibilbideak kilometro inguru duela kalkulatzen dute antolatzaileek eta, lana errazte aldera, hamabi zatitan banatu dute aurten ere ibilbidea: “Urkizu-Ibarkurutze, Ibarkurutze-anbulatorioa eta anbulatorioa-Untzaga, horiek

dira tarte nagusiak; baina horien barruan hainbat azpitarte antolatu ditugu. Gonbidapenak egiterako orduan talde edo elkarte bakoitzari tarte bat eman diogu, tarte bakoitzean jendea egongo dela ziurtatzeko; gure kalkuluen arabera 50-60 lagun beharko ditugu azpitarte

bakoitza betetzeko, eta 700 lagun ibilbide osoa betetzeko. Ez da erronka makala”. Horregatik dei egiten diete Eibarko euskaltzale guztiei, “maiatzaren 23an ozen oihukatu behar baitugu eibartarroko euskaraz bizi nahi dugula”. Urtero moduan, aurten ere soinean zerbait urdina





Eibarko Euskalgintzak eguaztenean aurkeztu zuen aurtengo Tantanez Tantan.



Haur zein heldu, elkarri gantzilla emanaz eramango dugu Untzagaraino.

eta koadrodun zapia eramatea eskatzen dute antolatzaileek. Urki-zutik anbulatoriora arteko tartee-tan egongo direnek 18:30-18:45 ingururako egon beharko dute han, katea ondo antolatzeko, eta anbulatorioa eta Untzaga artekoak, berriz, 19:00etarako.

Euskara ikasleak aurtengo omenduak

Euskararen alde egindako lana eta euskarari egindako ekarpena eskertu eta aitortuko du aurten ere euskararen olatuak eta euskara ikasleak izango dira oraingo omenduak, gaur egun ikasle direnak eta izan direnak: “Euskara ikasleek egiten duten esfortzua handia da eta ahalegin horri ikusgarritasuna emango diogu eta balioan jarri”, diote euskalgintzako mahaitik. Iturrian bi ikaslek beteko dute gantzilla urez eta beste bi izango dira katearen azkeneko mailan. Idatzi bat irakurriko dute Untzaga amaiera-ekitaldian.

>>> 700 bat lagun beharko dira giza katea osatzeko

>>> Euskara ikasleen ahalegina aitortu eta balioan jarriko da aurten

Euskal Jaiarekin bat

Orain dela bi urte egin zen bezala, aurten ere Euskal Jaiarekin bat egingo du Tantanez Tantan ekitaldiak: “Helburu berak batzen gaitu, euskararen eta euskal kulturaren bultzada, eta logikoa eta naturala da biak uztartzea. Euskal Jaiko barixakuan euskal tantanez beteko dugu herria”.

Animaziorik ere ez da faltako ibilbide osoan eta euskararen olatuak jai-giroan egingo du bidea: “Eibar

BHIko hankapaloek irekiko dute aurten ere katea, Musika Eskolako trikitilariak joango dira gantzilla laguntzen, eta Ustekabek itxiko du kalejira”. Antolatzaileen azkeneko eskaera euskaltzaleontzat: “Ez ahaztu zerbait urdina janztea eta lepoan koadrodun zapia jartzea!”. Euskaltzaleok aukera bikaina dugu Eibarren euskaraz bizitzeko dugun eskubidea ozen aldarrikatzeko. Sartu zaitezte ibilbidean eta izan zeuek ere Tantan!

Elkar mugituz egingo dugu!



Oraindik aukera dago Euskaraldian izena emateko

Atzo, maiatzak 15, eman zitzaion hasiera ofiziala Euskaraldiari. Eibarren, Untzaga plazan, ekitaldi berezia egin zen 11 egun iraungo duen euskararen aldeko ekimenari ongi etorri beroa egiteko. Maiatzaren 25ean amaituko da Euskaraldia. Dena dela, gogoratu oraindik izena eman ez duzuenok Euskaraldia bukatu arte duzuela izena emateko aukera. Beraz, animatu zaitezte eta eman izena www.euskaraldia.eus webgunean, norbanako zein entitate moduan.



Eibarko euskal dantzariak ere Euskaraldirako prest.





*Elkar mugituz
egingo dugu*



Mohamed Fadel

*Zergatik iruditzen zaizu
Euskaraldia garrantzitsua?
Zer aldaketa gustatuko
litzazuke nabaritzea?*

Euskaraldiak euskara bultzatzeko eta jende gehiagok hitz egiteko balio du. Euskara hemengo hizkuntza da eta, beraz, integrazio elementu bezala erabili daiteke. 9 urte daramatzat euskara ikasten, eta eguneroko bizitzan euskaraz berba egiten saiatzen naiz. Hizkuntza bat ezagutzeko ez da soilik gramatika ikasi behar; horrez gain, kultura, ohiturak eta folklorea ezagutu behar dira. Horretan asko laguntzen dute mintzapraktika taldeek, horiei esker bertako euskaldunekin egoteko aukera daukagulako. Euskaraldiarekin zenbait gauza aldatzea gustatuko litzaidake. Esate baterako, bertakoekin gehiago hitz egin nahiko nuke, kalean, dendetan... Bertakoek gehiago erabili beharko lukete euskara atzeritarrekin.



Josune Garro

*Zer azpimarratu nahiko
zenuke Euskaraldiaren
inguruan? Zein eremutan
uste duzu edukiko duela
eragin handiena?*

Euskarak Euskaraldia bezalako ekimenak behar ditu euskara bultzatzeko; bereziki Eibar bezalako hiri erdaldunetan, jende gutxi ausartzen delako euskarazko ekitaldietan parte hartzera. Tamalez, oraindik bide luzea dago egiteko, gazteak sentsibilizatzeko eta gure hizkuntza sustatzeko, eta Euskaraldia euskaraz hasteko aukera ona da. Uste dut eragin handiena lan munduan izango duela Euskaraldiak, denbora gehiena pertsona berberekin pasatzen dugulako eta hizkuntza ondo menperatzen ez badugu praktikatu dezakegulako. Baita poteoan ere (jajaja). Ahobizi edo Belarriprest txapak eramateak lagun dezake jendea gehiago parte hartzera animatzen.



*Elkar mugituz
egingo dugu*



Arrate Kultur Elkartea



Aste honetan banatu dira Ipurterre ipuin-lehiaketako sariak

Eguazten goizean banatu zituzten aurtengo Ipurterre Ipuin Lehiaketako sariak, Coliseo antzokian. Eibarko ikastetxeekin elkarlanean ...eta kitto! Euskara Elkarteak antolatzen duen lehiaketak XXXI. edizioa bete du aurtun. Gure herriko LH eta DBHko ikasleek 1.000 lan inguru aurkeztu dituzte, eta edizio honetako irabazleak honako hauek izan dira: June Alzaga (Eibar BHI-DBH2); Alaitz Herrera (La Salle Azitain-DBH4); Lucia Zubillaga (J.A.Mogel-LH2); Aiora Larrañaga (J.A.Mogel-LH4), eta Jon Mendoza (Aldatze-LH5). Imanol Ituiño magoak girotu zuen sari-banaketa ekitaldia, eta aho bete hortz laga zituen bertara joandakoak.



Altxorraren Bila arrakastatsua antolatu zuen ...eta kitto!-k

Joan zen barixakuan, eta eguraldi txarrari aurre eginez, 60 lagunek hartu zuten parte ...eta kitto! Euskara Elkarteak antolatutako Familia arteko Altxorraren Bila ekimenean. Helduz zein umez osatutako sei taldek jardun zuten guztira. Errebal Plazan hasita, hainbat pista asmatu behar izan zituzten eta horrekin batera hainbat proba egin ere: ko-reografia asmatu, hieroglifikoak, lasterketatxoak, lokotx-bilketa... Horiek guztiak gairatu eta gero,



Egigurentarren plazan amaitu zuten eta han guztiek jaso zuten saria: diploma, domina eta gozokiak. Elkartetik adierazi dutenez, “eguraldia ez genuen lagun izan, baina, hala ere, partaideek oso ondo baloratu zuten ekintza, errepikatzeko gogoz”.

Altxorraren Bila Gurasoak Berbetan-eko ikasturte amaierako ekin-tzetako bat da, baina ekainean izango da besterik. 11n, eguaztena, Kiki, Koko eta Moko pailazoen ikuskizuna eskainiko dute Errebal Plazan 17:30etik aurrera.



etxe-apainketa gehigarria

2025eko maiatzak 16

BERRIKUNTZA INTEGRALAK

Etxean berrikuntza integrala egiteko, garrantzitsua da honako alderdi hauek kontuan hartzea:

- **Beharrak eta helburuak definitzea:** Zer espaziok behar dute berritzea eta zergatik? Zeintzuk dira lehentasunak (funtzionaltasuna, estetika, eraginkortasun energetikoa...). Epe laburreko eta luzeko beharretan pentsatu (familia, lana, mugikortasuna).
- **Aurrekontu errealista:** Aurrekontu orokorra eta partidaka banakatua ezarri (obra, materialak, altzariak, ezustekoak). %10-20ko marjina sartzea aurreikusi gabeko gastuetarako.
- **Proiektua eta diseinua:** Proiektu profesional bat egin planoekin, banaketarekin, materialekin eta akaberekin. Espazioak irekitzeko, argi naturala hobetzeko edo eremuak birbanatzeko aukera baloratu.
- **Araudia eta lizentziak:** Kontsultatu udaletxean beharrezko lizentziak. Irisgarritasunari, eraginkortasunari eta segurtasunari buruzko araudiak kontuan izan behar dira.
- **Profesionalak aukeratzea:** Arkitektoa, interiorista, erreforma-enpresa bermeduna. Hainbat aurrekontu eskatu.



FATXADAK • TEILATUAK • IGOGAILUAK

Olaso kalea 15, 20870, Elgoibar
943744225

BARNE DISEINUA • ALTZARIAK

Errebal kalea 24 barrio 4000, Eibar
688669900

- **Materialen kalitatea:** Material iraunkorrak eta mantentze-lan errazekoak aukeratu. Irtenbide eraginkorrak kontuan hartu: isolamendua, leihoak, klimatizazioa.
- **Eraginkortasun energetikoa:** Isolamendu termikoa eta akustikoa hobetu. Instalazio elektrikoak, iturgintzakoak eta berokuntzakoak berritu. Energia berriztagarriak kontuan hartu (eguzki-plakak, aerotermia).
- **Plangintza eta denborak:** Obra-egutegi errealista ezarri. Faseak ondo koordinatu: eraispena, egitura, instalazioak, akaberak, dekorazioa.
- **Hondakinen kudeaketa:** Obra-hondakinak kentzeko eta materialak birziklatzeko lanak planifikatu. Edukiontzi bat kontratatu, beharrezkoa bada.
- **Azken xehetasunak:** Altzariak, argiztapena, ehunak eta dekorazioa hautatu.
- **Obra-kontrola:** Obra aldian behin bisitatu. Sortzen diren zalantzak eta egokitzapenak argitu.
- **Bermeak eta mantentze-lanak:** Obraren eta materialen idatzizko bermeak eskatu. Instalazio berrien etorkizuneko mantentze-lanak planifikatu.



Esperientzia eta erantzukizuna

Kalitatezko lanak

Konfiantzazko zerbitzua

Lanean zurekin...

...etorkizun hobeagoaz goza dezazun.

Tailerrak, fatxadak, igogailuak, teilatuak, bulegoak...

irazabal

943 120 108 www.irazabal.net eraikuntzak erreformak gutxitzea Azitain industrialdea, 3-H, EIBAR

MOLDAKORTASUNA DEKORAZIOAN

Elementuek eta espazioek denboraren poderioz behar, estilo eta erabilera desberdinetara egokitzeko duten gaitasunari egiten dio erreferentzia moldakortasunak.

- **Altzari multifuntzionalak:** Sofa-ohea, mahai luzagarriak, apalategi modularrak. Adibidez: mahai osagarri gisa erabiltzen diren aulkiak, ezkutuko biltegiatzea duten oheak.

- **Espazio malguak:** Erabilera aldakorretara egokitzen diren giro irekiak: bulego bihurtzen den egongela, familia-bileretarako gune gisa erabiltzen den jantokia. Bionboak, gortinak edo panel irristagarriak, obrarik gabeko eremu independenteak sortzeko.

- **Kolore eta material neutroak:**

Denboraz kanpoko paletak (beigeak, grisak, berde leunak), dekorazio-elementu berriak erraz integratzea edo estiloa eraberritze handirik gabe aldatzea ahalbidetzen dutenak. Edo egur argia, metal beltz matea eta ehun naturalak bezalako materialak, hainbat estetikarekin konbinatzen dutenak.



- **Soluzio teknologiko integratuak:**

Argiztapen adimenduna, ezkutuko entxufeak, hari gabeko karga duten altzariak. Espazioa behar berrietara egokitzea errazten dute (tefelana, entretenimendua, etab.).

- **Dekorazio modularra eta eskalagarria:**

Apalategiak, sofak edo biltegiatze-sistemak, espazio erabilgarriaren arabera handitzen edo murrizten direnak. Ezin hobea da etxebizitza txikietarako edo maiz etxez aldatzen direnentzat.





ESTUDIO MARSÍ

Interiorismoa
Proiektuak / Erreformak
Altzariak

Ego Gain, 2, EIBAR

747492715

📷 estudiomarsi



NEURE

Toribio Etxebarria, 24, EIBAR - 943700818 - 615758644

📷 neuredecoracion

SORMENEZ INTEGRATUTAKO LANDAREAK

Naturarekiko lotura ez da berria, baina 2025ean landareak dekorazio-elementu soil izateari utzi eta barne-arkitekturaren protagonista bihurtu dira. Kontua ez da lorontziak jartzea bakarrik: orain espazioetan modu funtzional eta artistikoan integratzen dira. Diseinuari freskotasuna eta ukitu organikoa ematen diote. Hauek dira joera nabarmenak:

- **Barnealdeko lorategi bertikalak:** Panel berde biziak egongeletan, korridoreetan edo sukaldeetan. Apartamentu urbanoetarako aproposak dira, freskotasuna bilatzen dutelako, lekurik galdu gabe. Soluzio hidroponikoak eta mantentze-lan txikikoa dira.

- **Landaredia duten altzariak:** Mahaiak lorategi txiki zentralekin; landareentzat konpartimentuak dituzten apalategiak; loreontzi integratuak dituzten oheburuak...

- **Loreontzi esekiak eta egitura flotatzailak:** Sabaitik zintzilik dauden sareak, saskiak edo



dica® sukaldeak

URRATEGI
INTERIORISMO
barne diseinua

dena sukaldean hasten da

www.urrategiinteriorismo.com • Azpeitia Arretxe 9 Eibar Aragoeta 27

sistema modularrak. Ezin hobeak barrualdeetan "sabai berdeak" sortzeko. Arintasun eta dinamismo sentsazioa ematen dute.

- Bionboak eta bereizgailu naturalak:

Landare igokariz edo landaredi-moduluz osatutako panel banatzaileak. Giroak bereizten dituzte argia blokeatu gabe. Asko erabiltzen dira estudioetan, etxeko bulegoetan eta espazio irekietan.

- Lorategiak leihotetan eta marko berdeak:

Baratzte bertikal txikiak edo landare usaintsuak leihomarkoetan. Hormetako "koadro biziak" ere badira, eta ikusmen-freskura ematen dute.

- "Spa berde" motako bainuak:

Tamaina handiko landareak (hala nola monsterak, iratzeak edo banbua), bainua oasi txiki bihurtzen dutenak. Hezetasun naturala eta ongizate-sentsazioa ematen dute.

- Barruko zoru eta sabai berdeak:

Proiektu berritzaileagoetan, goroldio biziko eremuak dituzten lurzoruak integratzen dira. Sabai aizunak, landare-panelek, airearen akustika eta kalitatea hobetzeko.



NOLA ATERA ETEKIN HANDIENA ZURE KOMUNARI

- **Kolore naturalak eta lurraren tonuak** (beixa, hondarra, terrakota, berde salbia): Tonu neutroek lasaitasuna eta spa sentazioa ematen dute.
- **Estaldura testurizatuak**: Erliebedun azulejuak, harri naturala edo portzelanazkoak, material organikoak imitatzen dituztenak. Artisau zeramika ere modan dago.
- **Landare eta elementu berdeak**: Jarri hezetasunarekiko erresistenteak diren landareak, hala nola potoak, iratzeak edo sanseberiak. Lorategi bertikal txikiek freskotasuna ematen dute.
- **Altzari esekiak eta lerro minimalistak**: Altzari flotatzaileak anplitude-sentsazioa emateko. Lerro zuzenak, diseinu sinpleak baina kalitatezko materialekin.
- **Beltz matezko edo letoizko osagarriak**: Txorrotek, toalleroek eta beltz matez edo letoi zahartuz egindako xehetasunek ukitu sofistikatu ematen dute. Kromatu distiratsuak saihestu.
- **Ispilu handiak eta atzeraargiztatuak**: Ispilu biribilak



- edo forma organikodunak joera dira. Gehitu LED argiztapena atzean, efektu dotore baterako.
- **Spa motako dutxak**: Euri-efektua duten dutxa-zutabeak. Profilik gabeko edo kristal ketuzko manparak look garaikide baterako.
- **Ehun naturalak**: Kotoi organikoak edo lihozko eskuoihalak eta alfonbrak.



Erreforma integralak
Gremioen koordinaketa

REONOR
REFORMAS Y OBRAS DEL NORTE

Barrena, 14 Tf. 943 254 254



est. LEIRE 2010
LIZARRALDE
INTERIORISMO

www.leirelizarralde.com

info@leirelizarralde.com

670 97 56 65

TOM LACI

ERAIKUNTZAK & ERREFORMAK



ETA GURETZAKO ZER?

Nola integratu zure maskotak etxeko dekorazioan?
Hauek dira azken joerak:

- Material erresistenteak eta garbitzeko errazak:

Mantxen aurkako eta harramazken aurkako ehunak: mikrofibrazko sofak, belus teknikoak, polipielak edo loneta lodiak. Binilozko, gres portzelanikozko edo mikrozeimentuzko zoruak: harramazkei eta hezetasunari erresistenteak.

- Haientzat pentsatutako espazioak (eta politak):

Diseinuzko oheak eta etxetxoak (egur naturalezkoak, forma minimalistakoak, apaletan edo altzari osagarri gisa integratuak. Atsedenerako txoko altuak: ezin hobeak katuentzat, hormako apalekin eta tonu neutroko egiturekin. Jolasgune diskretuak (alfonbra garbigarriak, zuntz naturaleko akaberak dituzten arraspagailu bertikalak).

- Ilea eta zikinkeria disimulatzen duten koloreak eta

estiloak: Ilea kamuflatzen duten tonu ertainak (beixa, gris beroak, marroi leunak). Boho, nordiko edo wabi-sabi estiloak, inperfekzio naturalak dituztenak.

- Irtenbide praktikoak eta integratuak: Gatera ezkutua duten atekak. Funtzio bikoitzeko altzariak



(txakurraren ohea ezkutatzen duen zapata-bankua). Dekorazioko alfonbra binilikoak: politak, irristagaitzak eta garbitzeko errazak.

- Animalien segurtasuna eta ongizatea: Saihestu maskotentzako landare toxikoak (potoak, liliak edo filodendroak).

VENTANAS ONA[®] LEIHOAK
Bidebarrieta, 28 Tel. eta Faxo: 943 20 28 28
Mugikorra: 653 113 309 / 688 695 415
info@ventanasona.com / www.ventanasona.com

**ARROZTEGI METALIKOA, PVC ETA MISTOA
KONPONKETA ETA MANTENIMENDU ZERBITZUA**

Arane, 6 -EIBAR- 943 20 61 64 / 943 17 19 73

F. PASCUAL
ARROZTEGIA - EBANISTERIA
SUKALDE ALTZARIETAN ESPEZIALIZATUAK

www.cocinaspascual.com
ALTZARIAK NEURRIRA
zure etxea, zure estiloa

ARMAIRU ENPOTRATUAK
Zur mota guztietan
Zure dekoraziora egokitu

SUKALDE ALTZARIAK
Fabrikatzaileak gara
30 urtetik gorako esperientzia

Zubiaurre, 36 - 38
ERMUA
943 17 68 28

VIRGINIA PASCUAL

BARNE-ATEETARAKO JOERAK

- **Zorutik sabairako ateak (ate altuak):** Estilo minimalista eta dotorea. Garaiera eta zabaltasun handiagoko sentsazioa sortzen dute geletan. Espazio garaikideetan eta diseinu garbiko inguruneetan oso erabiliak.

- **Ate ezkutuak edo zarpiatuak (ate ikusezinak):** Moldura eta marko ikusgarririk gabe. Hormarekin bat datoz (kolore eta material berean margotuak edo panelatuak). Oso eskatuak estilo moderno eta minimalistan.

- **Material naturalak eta testurak:** Zur trinkoa, zainak markatuta dituena (haritza, intxaurrendoa, lizarra). Akabera naturalak, arrabotatuak, tonu berotan eta matean. Metal beltzarekin edo urre-kolorekoarekin konbinatu ukitu industrial edo sofistikatuatarako.

- **Kristalezko eta metalezko ateak** (estilo industrial dotorea): Metalezko egitura finak (beltza, grafitoa) kristalezko azalera handiekin. Argia pasatzen uzten dute, ezin hobeak isolatu gabe bereizteko. Bertsio malguak, lerragarriak edo "akordeoi" motakoak.



- **Irristailu-ate ikusgarriak:** Diseinuko gida bistakoak, material nobleak, baita akabera lakatu edo minimalistetan ere. Espazioa aurrezten dute eta dekorazio-ukitu bat ematen dute.

- **Tendentzia-koloreak ateetan:** Harea tonuak, harria, gris beroa. Kolore leunetan lakatutako ateak (berde oliba, urdin grisaxka, terrakota). Pareta neutroekin kontrastatu nortasuna emateko.

- **Diseinu geometrikoak eta panelatuak:** Erliebeak, fresaketak, moldura minimalistak. Japandi eta Mid-Century estiloa: lerro garbiak, xehetasun sotilekin.

Teilatuak Fatxadak Sukaldeak Gremioen koordinazioa etab.

JORGE VEGA S.L.
IGELTSEKITZA

F. Calbetón, 4 - 3. solairua




Tel. 943 20 83 26 eta 607 20 12 23 Tel. eta Faxe: 943 20 77 34 jorgevega.eibar@gmail.com

Urkiko talde nagusiak denboraldia borobildu zuen Ohorezkoako igoerarekin

Lurraldeko Gorengo Mailako titulua eskuratuta borobildu zuen azken zapatuan bere mailako bigarren multzoan denboraldi guztian erakutsitako nagusitasuna. Azken jardunaldiaren faltan, eibartarrek sei puntuko aldea ateratzen diote Debako Amaiak Bat taldeari (honek ere mailaz igo du) eta orain arte 23 partidua irabazi ditu, hiru

berdindu eta beste hiru galdu. 65 gol sartu ditu guztira eta bakarrik 20 gol jaso, multzoko defentsarik onena erakutsiz. Zapatuko partiduan eibartarrek 5-1 irabazi zioten Ikasberriri, Amutxastegiren bi goli eta Lur, Markel eta Ane-ren banakoei esker. Ondo ospatu zuen taldeak egindako balentria Kultun egindako bazkariarekin eta



Unben partidua irabazi ondorengoko jai-giroan Urkikoek kamioi batera igota paseatu zuten herritik.



handik ordu batzuetara Ubitxatik Untzagaraino kamioian egindako jaitsierarekin. Ibilbidean jasotako txalo-zaparradak eta txarangaren bueltako poteoak eibartarrek erakutsitako eskertzairen lekuko izan ziren. Ohorezko Maila izango dute zain hurrengo denboraldian.

Nafarroa Xtrem-eko beste irteera bat egingo dute hilaren 31n

Mendebaldeko Pirinioetan barrena, mendiko korrikalariarentzat sortutako "Nafarroa Xtrem" izeneko lasterketa du oinarri GR 322 bideak. Apirilaren amaiera aldean Lantzen elkartzen ditu korrikalariak, Esteribar, Erro, Baztan, Lantz eta Anue bailaretan zehar korrika egiteko. Ibilbidea hiru etapatan banatuta dago eta, iaz etapa baten zati bat egin ondoren (Saioa eta Lantzen artekoa), aurten beste bi etapa egingo dituzte Deporrek irteeretan. Hilaren azken egunekoan Urkiagako portuan hasiko dute ibilbidea eta, berehala, Adiren maldetan zehar egingo dute gora, bertatik ikuspegi bikaina izateko "eguraldiak la-



Aurreko zapatuko ikasturteko azken irteeran (Larraitx-Zaldibia) 45 haur izan ziren.

guntzen badu": Adi egin nahi ez duenak aldameneko pista batetik zehar ekin dezake bertako aldapa gogorra. Ondoren, baso ederretan zehar egingo diote Zubirirako bideari; azken aukera gisa, Urtasundik Eugirako bidea egin daiteke eta, on-

doren, GR-arekin bat egin Zubirira iristeko. Ibilbidearen distantzia 18 kilometrokoa da, bigarren alternatibarena 12 kilometro eta erdikoa. Goizeko 07:00etan abiatuko dira Eibartik eta itzulera 18:00etarako aurreikusten dute.



SD Eibarko bigarren taldeak Sabadell historikoa hartuko du Ipuruan play-offean

Aurreko domekan Sabadellen jokatutako 1. RFEF Mailara igotzeko play-offaren joaneko partiduan bana berdindu ondoren, Ipuruak domeka eguerdian (12:00etan hasita) hartuko duen itzulerako norgehiagokan erabakiko da zeinek egingo duen aurrera. SD Eibarko

gizonezkoen bigarren taldeak maila bikaina erakutsi zuen Nova Creu Altan eta, partidu hasieratik galtzen joan arren, kataluniarrek penaltiz lortutako golarekin, jokoaren pisua eraman zuen 90. minutuan berdinketa lortu arte, Sarasketak gauzatutako golarekin.

Futbol-zaletuaren Kopako finalerdiak

Aurreko asteburuan Unben jokatutako futbol-zaletuaren torneoko Kopako final-laurdenen ondoren, dagoeneko badakigu zeintzuk izango diren finalerdietara heldu diren lau taldeak. Malape Tabernak 3-0 irabazi zion BOJ taldeari eta Kalaka Buenos Aires 2-1 nagusitu zitzaion Adahi Etxegiri. Hirugarren neurketan Garajes Garciak eta Bar Maremek bina berdindu zuten, ondoren penaltietan Bar Marem nagusitzeko; hala ere, talde bat repeskatu behar zen finalerdietako laugarrena izateko, eta zorte hori egokitu zitzaion Garajes Garciari, hain zuzen ere. Finalerdietako partidu biak zapatu honetan jokatuko dira: 09:00etan, Bar Marem vs Kalaka Buenos Aires; eta 10:30ean, Malape Taberna vs Garajes Garcia.

Saskibaloia Jaia ospatuko dute bihar Untzagan eguerdira arte

Urteroko bidetik, zapatu honetan (maiatzak 17), goizeko 09:00etan hasi eta arratsaldeko 15:00ak arte, hartuko du saskibaloiko egun haundi horrek. Eibar Saskibaloia klubak antolatutako ekitaldietarako hiru kanasta ezarriko dituzte, jokoak eta 3x3 lehiaketak egingo dira, musika egongo da DJ batzurekin eta txosna ere zabalduko dute, janari eta edarriekin; izango da tarterik zozketak ere egiteko.



Mailaz igo duen Artesanos Juntxo taldea.

Eguna aprobetxatuko dute, aldi berean, Tenneco Eibar Saskibaloia eta Artesanos Juntxo Eibar Saskibaloia taldeei omenaldia egiteko denboraldi honetan lortutako maila igoerengatik, lehenengoan kasuan Zilarrezko Ligara eta eta bigarrenengoen Lurraldeko 1. Mailara. Azken talde horrek denboraldi amaiera bikaina egin du eta, sailkapeneko hirugarren postura helduta, mailaz igo du.



**Zure publizitatea
herriko aldizkarian**
688 621 535
 publizitatea@etakitto.eus



LORADENDA
 San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29

LORA ETA LANDARE
 NATURAL ETA
 LEHORRAK
 EZKONTZETARAKO
 LORAK
 ZENTROAK
 ERAMUAK
Enkarguak etxera

Eibar Rugby Ohorezko Mailara igotzeko azken urratsaren zain

Aukera bikoitza izango dute Eibar Rugbikoek aurreko denboraldian galdutako maila berriz ere berreskuratzeko. Javi Aguadok prestatutako taldeak ibilbide gorabeheratsua izan du orain arte Ohorezko B Mailan eta, lehenengo fasean partidu guztiak irabazi eta gero, bigarrenen hainbat porrot bildu zituen. Baina zirt edo zart egiteko ordua heldu denean indartsu ekin die azken kanporaketei eta, aurretik Santboianari Unben irabazi ondoren, Eibarko hamabostekoa 6-31 nagusitu zitzaion Valentzian Turriari. Behin Levanteko taldea kanporatuta, eibartarrek Pozueloko Olímpicoren aurka jokatu dute Ohorezko B Mailako finala domekan. Horko irabazleak iaz galdutako maila berreskuratuko du, eta galtzaileak beste aukera bat izango du helburu bera lortzeko, oraingo



Domekako norgehiagoka erabakiorra izango da mailaz igotzeko.

horretan A Coruñaeko CRAT-en aurka jokatzuz partidu bakarrera. Valentzian jokaturako finalerdi horretara iristeko, bi hilabete jokatu barik egon ostean, aurretik Eibar Rugbyk 48-0 irabazi zion Sant-

boianari Unben. Aguadok prestatzen duen emakumezkoen taldeak aurkari zaila izango du Pozueloko Olímpicoan, jokaturako beste finalerdian Madrilgo taldeak 76-0 irabazi baitzion Flor de Escociari.

Cesar Perez hirukoen arteko onena Valenciaga Memorialean

Minutu bateko aldeaz T. Etxebarriako helmugan aurkeztu zen hirukotearen artean jokatu zen Valenciaga Memorialaren 54. edizioa. Eta hor aurretik ere Espainiako Kopako liderra zen Finiser/KernPharmako

Cesar Perez izan zen azkarrena, azken metrora arte garaipena berarekin borrokatu zuen Cortizoko Martin Solhaug-en aurretik; Essax-Suico Foundation taldeko Jesse Maris hirugarrenak metro batzuk

lehenago eman zuen amore. Minutu batera sartu zen 17 laguneko taldetxoa, eta hortik aurrerakoek bi minutu baino gehiago galduko zuten.

Lasterketa txirrindulariei gogorra egin zitzaizela ikusteko probarik onena da abiatu ziren 175etik bakarrik 81ek lortu zutela helmugaratzea. Irabazleak lau ordu baino zerbait gutxiago behar izan zituen 165 kilometroak osatzeko: 3:53:15 izan zen bere denbora, orduko 42,418 kilometroko abiadurakoa. Mendiko saria Caja Ruraleko Adria Regadarentzat izan zen, tarteko helmugetako sailkapena Cesar Perez irabazlearentzat berarentzat izan zen, sprint berezietakoa Eiseko Iñaki Trujillok bereganatu zuen eta, azkenik, taldeka Cortizo nagusitu zen.



Cesar Perezen azken pedalkadek erabaki zuten Valenciaga Memorialaren azken emaitza.

Bueltan dira Kiaren 10 Egunak

Maiatzaren 15etik 26ra.



Movement that inspires

15.500 €* -tik aurrera:
Finantzatuta

Kiaren 20 urteak ospatzen ari gara Rafa Nadalekin batera. Une ederrak bizi izan ditugu berarekin. Baina, orain, zurea iritsi da. Aprobetxatu Kiako 10 Egunen edizio berezi hau, eta aukeratu zure Kia gogokoena prezio ezin hobean, eta berehala jasoko duzu.

NAIA CAR

Apalategi, 1 EIBAR

943 70 70 33

gruponaiacar.com

WLTP isurketa konbinatuak (g/km): 121-159. WLTP kontsumo konbinatua (l/100 km): 5,3-5,8. EV: CO₂ isuri konbinatuak: WLTP (g/km): 0. WLTP kontsumo konbinatua (kWh/100km): 14,9-16,2. *PVPR Kia Picanto 1.0 DPi Concept (zerpak, garraltoa eta promozio-ekintzak barne). Ez dira sartzen gestoriako eta matrikulaziozko gastuak. Eskaintza hau Banco Cetelem SAUekin Flexiplan kanpainaren bidez finantzatzen duten bezero partikularrei aplikatuko zaio. Gukieneko zenbatekoa 7.000 €-koa izango da, 36 hilabeteko gutxienezko epean eta gutxienez 36 hilabeteko egonaldiarekin. Eskaintza hau ez da bateragarria beste finantza-eskaintza batzuekin, eta 2025eko maiatzaren 15etik 26ra arte balio du. Kontuaitatu eskaintzaren baldintzak www.kia.com/webgunean.



Espetxetik irtetea askatasuna lortzea baino gehiago da

Harrera elkartea 2012an jaio zen Euskal Herrian espetxea, erbestea edota deportazioa pairatu duten emakume zein gizonezkoen gizarteratzean laguntzeko. Helburu horiek aurrera eramateko, eta gizarteak gizartea salbatzen duela aldarrikatuz, bazkideen ekarpenak ezinbestekoak dira eta, gaur egungo erronkei aurre egin ahal izateko, '5.000 baietz' kanpaina jarri dute martxan. Hilaren 29an, 18:30ean, emango dute horren berri Arrate Kultur Elkartearen.

Informazio gehiago
elkartearen webgunean:



Harrera elkarteko Ibai Iriartek esan digunez, “beharrak hala eskatuta” jarri dute martxan ‘5.000 baietz’ bazkide kanpaina. “3.500 bazkide inguru gara momentu honetan, baina euskal preso, iheslari eta deportatuen egoera aldatzen ari da, geroz eta preso gutxiago dago espetxeetan, atzeritik ere geroz eta gehiago etorri dira bueltan eta horrek lan-karga handitzea ekarri dio Harrerari, zorionez, baina horrek kostu ekonomikoa dauka”, azaldu digunez. Iaz, adibidez, 117 lagunek jaso zuten Harreraren laguntza eta 338.000 euro bideratu zituzten laguntza horietarako.


Harrera elkartea bazkideek “sostengatzen” dutela kontuan hartuta, “bazkideetza kopurua igotzea ezinbestekoa zaigu”, Iriarteren iritziz. Dena dela, Harrerak konfiantzaz ekin dio kanpainari. “Herri honetan milaka lagun aritu dira solidaritatez dispertsioaren urterik gogorrenetan (Mirentxin dugu hor, diru-bilketak egin dira...), eta modu batean

edo bestean egoera horrek zekarren kostu humano, pertsonal eta ekonomikoa sostengatu du”, gogoratzen du. “Euskal gizartea solidarioa da eta elkartasun horretatik jendeak erantzun egiten du. Hori ikusi dugu hitzaldiak egin ditugun tokietan”.

Harreraren eginkizunak

Harrera elkartea Euskal Herriko hainbat herritan aurkezpen hitzaldiak egiten hasi da eta hilaren 29an iritsiko da gurrera. Bertan, elkartearen nondik norakoak azaltzeaz gain, zera azaldu nahi dute: “Gatazka politikoaren ondorio baten egoera zein den ezagutarazi nahi dugu. Hau da, preso, exiliatu eta erbesteratuen egoera, horien etxeratze-egoera nola ematen ari den, eta horrek dakarrena, bai arlo sozialean bai ekonomikoan. Egoeraren argazki orokorra erakutsi nahi dugu”.

Harrerak 13 urte daramatza lanean eta gaur egungo egoera ez da hasierako bera. “Lehen urte mordoa ematen zituzten espetxean eta bat-batean askatasuna lortzen zu-



Harrera elkarteak horrela irudikatzen du preso, exiliatu eta errefuxiatuen egoera espetxetik irtetekoan.

ten. Lehen graduan edo isolamenduan eta urrun egotetik, bat-batean kalean aurkitzen zen preso. Gaur egun, oster, kaleratzea ez da horrela ematen ari. 115 preso ditugu eta erdia baino gehiago kalea zapaltzen ari da, eta kalea zapaltzen dutenetik Harrera eurekin lanean dago”, Iriartek dioenez. “Izan ere, gaur egun preso asko 2. graduan daude eta kalera ateratzen dira lana, ikasketak edo boluntarioritza-lanak egitera”.

Elkartea preso bakoitzaren behar eta egoerara egokitzen saiatzen da eta, horretarako, eurentzat ezinbestekoa da etxeratze-bide bakoitza modu individualizatuan diseinatzeko. Dena dela, badaude oinarritzko gauza batzuk. Adibidez, arlo juridiko administratiboan, lehenengo tramiteak egiteko aholkularitza eta laguntza eskaintzen dizkiete; osasungintzari dagokionez, “medikuntza-asistentzia kartzelan edo erbestean oso eskasa izaten denez, bueltatzean osasun arazoak izaten dituzte”, eta horregatik psiko-

logo, oftalmologo eta dentista taldeak dituzte; arlo ekonomikoari begira, preso eta errefuxiatu ohiek ondarkerik izaten ez dutenez, diruz laguntzen diete lehendabiziko hila-beteetan; eta lana aurkitzen ere laguntzen diete.

Bazkide egiteko

Bazkide egin ahal izateko ekarpen minimoa urtean 60 eurokoa da, “eta hortik aurrera nahi den guztia eman daiteke”, kontatu digu Iriartek. Kuota ordaintzeko aukera ezberdinak daude (urtean behin, bi zatitan, hirutan, lautan edo hilero) eta baita egiteko moduak ere: “bazkideak.harreraelkartea.eus webgunean egin daiteke izapidetza betez, gure inguruko jendearengana joz, edo zenbait herritan jarri ditugun bazkidetza orriak bete eta WhatsApppe bidaliz”, Iriarteren berbetan. “Gainera, 2025eko ekarpen guztiek 2026ko errenta aitortzean dedukzioa izango dute. Beraz, %20 jasoko lukete bueltan”, azaldu digunez.

**Harrera elkarteak
'5.000 baietz'
bazkide-kanpaina
jarri du martxan**

**Hilaren 29an
aurkeztuko dute,
18:30ean, Arrate
Kultur Elkartean**

“Zailena letra jartzea da, baina izugarri gustatzen zait abestien letrak sortzea eta hitzekin jolastea”

IKER SANZ • Musikaria



Gitarrarekin modu naturalean bat egin duen musikaria da Iker Sanz. Musikarekiko pasioak eraman du gitarra bere kabuz jotzen ikastera, orain pianoarekin ere ausartzen da, eta ahots goxo bezain zintzoarekin oso proposamen musikal erakargarria sortu du. Orain dela gutxira arte lagun eta familia artean geratu dira bere abestiak, baina orain bidea egiten ari dira entzule askoren belarrietan.

Musika Km0 lehiaketan parte hartu zuen 2024ko amaieran eta erantzun ezin hobeagoa zuen, hiru irabazleetakoa bat izan baitzen, eta Bilboko Campos Eliseos antzokian jotzeko aukera izan zuen. Ekainaren 7an Ibarkurutzen egingo den Poesia eta Musika Gauaren 12. edizioan hartuko du parte.

Zein izan zen gitarrearekin eta konposaketarekin izan zenuen lehen harremana?

12 urterekin fraideen eskolan ikasten hasi nintzen eta gitarra jotzeko ohikoak diren lau akordeak irakatsi zizkidaten. Harrezkero, zaletasun hori nire kabuz lantzen eta jorratzen joan naiz. Hasieran beste musikari batzuen kantak jotzen eta abesten hasi nintzen, eta gaur egun abesti propioak sortzen ditut.

Zure kabuz ikasi duzu hori guztia?

Bai, autodidakta izan naiz. Euskararekin ere antzera. Euskaldun berria naiz eta neure kabuz ikasten hasi nintzen, etxean, ‘Bakarka’ metodoaren bitartez. Liburu asko irakurri nituen, ispilu baten aurrean ahoskatzen nuen... Gero, maila igotzeko, Ermuko AEK-ra joan nintzen eta asko lagundu ninduten.

Musikari dagokionez, gaur egun YouTube eta horre-

lakoen bitartez badaude norbere kabuz ikasteko moduak, baina zure sasoian agian ez. Nola moldatu zinen?

Hasieran irakatsi zizkidaten lau akorde horiekin urte mordo aritu naiz trebatzen.

Baina lau akorde horiekin noraino iritsi zaitezke?

Edozein tokitara! Ia abesti gehienak lau akorde horiekin jo daitezke, baina egia da batzuetan lau akorde horiekin ez dela nahikoa. Orduan, Internet eta YouTube etorri ziren, eta tutorialekin gauza gehiago eta berriak ikasi ahal izan nituen. Gaur egun pianoa jotzen hasi naiz tutorialen bitartez. Abestien konposaketa batzuk pianoarekin egin ditut. Adibidez, Musika Km0 lehiaketa irabazteko balio izan zidan abestia pianoarekin sortu nuen. Ez daukat pianoa jotzeko ideiarik, baina intuizioz edo, atzamarrak tekletan jarri eta zerbait irteten da.

Baina gauza bat da beste batzuen bertsioak jotzea, eta beste bat abesti propioak sortzea. Nola eman zenuen jauzia?

Pandemia sasoian sortu zen hori. Denbora dezente pasa genuen etxean giltzapetuta eta, egoera horri alde positiboa ikusten saiatuz, denbora aprobetxatzen saiatu nintzen. Etxean espazio berriak sortu ziren eta gauzak egiten probatzeko aprobetxatu nuen. Denbora neraman melodiak eta esaldiak sortzen, eta pandemian pentsatu



Musika Km0 lehiaketa irabazi ondoren, Poesia eta Musika Gauan arituko da Iker Sanz. EKHIBELAR

nuen ea abesti oso bat egiteko gai izango nintzen. Asmatu nuen eta gai nintzela konturatu nintzen.

Nola sortzen dituzu abestiak?

Sarritan edukitzen dut gitarra esku artean eta beti nabil zerbait jotzen. Beraz, melodia asko ditut buruan. Askotan grabatu egiten ditut, momentu inspiratzaile horiek aprobetxatu egin behar direlako. Hortik zerbait ateratzen bada ondo, eta bestela hor gelditzen da. Nire kasuan zailena letra jartzea da, baina izugarri gustatzen zait abestien letra sortzea eta hitzekin jolastea.

Nolako musika egiten duzu?

Pop-rocka jo izan dut. Orain arte gitarra klasikoa nuen, baina orain dela urtebete gitarra akustikoa erosi eta estiloaren eremua zabaldu egin zitzaidan. Gitarra klasikoarekin mugatua sentitzen nintzen, baina gitarra akustikoarekin espazioa zabaldu egin zait. Gainera, gitarra elektrikoa ere badut. Beraz, pop-rocka topera! Gainera, abestiei bateria doinuak sartzen dizkiet ordenagailuarekin.

Ez duzu talde baten beharrik?

Ezin izango nuke talde batean egon, ez dudalako denborarik. Errazagoa da etxean, denbora dudanean, melo-

“Errazagoa da etxean, denbora dudanean, melodiak sortzea, letra jartzea, bateria eta baxua gehitzea... Den-dena belarriz egiten dut”

diak sortzea, letra jartzea, bateria eta baxua gehitzea... Den-dena belarriz egiten dut.

Euskaldun berria zarela aipatu duzu. Euskarazko abestiak sortzen dituzu?

Uff, pila bat gustatuko litzaidake! Urte asko egin ditut euskara ikasten, dena eman dut euskara ikasteko, milaka ordu, eta bideaz asko gozatu dut. Ikaragarri gustatuko litzaidake euskarazko abestiak sortzea eta saiatu naiz, baina zaila egiten zait. Hizkuntza goitik behera menperatu behar dela pentsatzen dut. Euskaraz solasaldi bat eduki dezaket, baina abestiak egitea eta hitzekin jolastea beste gauza bat da. Lizentzia poetikoak oso

BIDEOA



politak dira, baina ondo jakin behar duzu zertan ari zaren. Agian, zerbait delikatu egiten saiatzen zara eta, oster, zerbait oso gordina irteten zaizu. Beraz, saiatu naiz, baina momentuz ez naiz oso eroso sentitu. Hori bai, euskarazko abestiak kantatzen ditut: Benito Lertxundi, Mikel Urdangarin...

Musika Km0 lehiaketako irabazleetako bat izan zara. Nolako esperientzia izan zen?

Izugarri ona! Campos Eliseos antzokiko kupulan jo genuen hiru irabazleok eta oholtzara igotzen nintzen lehen aldia zen. Emaztea eta semeak, arreba eta lagun bat etorri ziren, eta oso ondo sentitu nintzen. Urduri jarriko nintzela banekienez, aurretik lanketa egin nuen esperientziaz gozatu ahal izateko.

Ordura arte zure musika etxeokok eta lagunek entzuten zuten. Nola animatu zinen horrelako lehiaketa batean parte hartzera?

Izena eman baino egun batzuk lehenago zalantzan nengoen oraindik, baina entzuleei nire musika zer iruditzen zaien ikusteko eman nuen pausoa. Ingurukoek esaten didate oso abesti onak direla, baina babesleku horretatik kanpo besteei zer iruditzen zaien jakin nahi nuen. **Antza denez gustatu zitzaion, lehiaketa irabazi zenuen eta. Nola sentitu zara aurkezten zaren lehen lehiaketa irabazita?**

Konfiantza eman dit, eta zerbait gehiago egiteko go-go. Mankomunitatean egiten dut lan, hori da nire ogibidea, baina musika da nire zaletasuna eta zergatik ez gauza gehiago egin eta probatu? Azkenean, bizitzan esperientziak eramaten dituzu zurekin eta esperientzia berrien bila nabil.

Ekainean esperientzia berri bat biziko duzu Poesia eta Musika Gauan.

Maite Lorenzo antolatzaileak gonbidatu nau eta pozik esan diot baietz, esperientzia polita izango da. Bertan zenbait lagunek poesia irakurriko dute eta, ordu eta erdiko ekitaldia izango denez, tartean musika joko dute saioa arintzeko eta aberasteko.

Beste ikuskizunik baduzu agendan?

Momentuz ez. Sare sozialetan abestiak zintzilikatzea



“Ingurukoek esaten didate oso abesti onak egiten ditudala, baina babesleku horretatik kanpo besteei zer iruditzen zaien jakin nahi nuen”

pentsatzen ari naiz. Ez dut sare sozialik, WhatsAppa bakarrik erabiltzen dut eta hortik bidaltzen dizkiet abestiak lagunei, eta badakigu mundu digitalean ez bazaude ez zaudela inon ere, eta erren gelditzen zara arlo horretan. YouTuben kontua irekitzea pentsatzen ari naiz.

Eta diskoren bat grabatzeko asmorik?

Jada ez dira diskoak egiten. Orain abesti bat egiten da, handik hilabetera beste bat, eta horrela. Azkar kontsumitzeko gauzak egiten dira. Beraz, abestiak igotzen joango naiz; gainera, denbora behar izaten dut abestiak behar bezala prestatzeko.

Euskelgaren kontzertua eta “Ombuaren itzala” filma Euskal Jaia iragartzeko

Urterokoari jarraituz, maiatzaren azken asteburuak hartuko du Eibarko Euskal Jaiaren 60. edizioko egitarauaren zatirik handiena ere. Baina aurretik izan badira beste ekitaldi batzuk Klub Deportiboak antolatutako programazioan; esaterako, eguaztenean Deporren bertan izan zuten “80ko hamarkadako Euskal Jaiak” gaiaren inguruko solasaldia.

Motorrak berotzen hilabete batzuk lehenago hasten direlako Euskal Jaietako prestatzaileak. Horrela, martxoan abiatu zuten baita Euskal Jaiko VI. Pala Txapelketa ere, hilaren 24an (zapatua) Astelenan bertako finalak jasoko dituen. Eta Euskal Jaietara amaiera ematen dien larrain-dantzarako prestaketak ere apirilean ipini zituzten martxan, dantza-pausoei berriro ere egokitze-ko asmoz. Aipatutako herenegun-ko solasaldiak atzokoan jarraipena izan zuen egitarauan, Untzagan egin zen Euskaraldiko aurkezpen ekitaldiarekin.

Biharkoan lehenengo kontzertuaren txanda izango da, Euskelga folk taldearen eskutik. 20:15ean emango zaio hasiera Deportibo parean ezarritako oholtzan musika euskalduna, galiziarra, irlandarra eta eskoziarra uztartzen dituen taldearen emankizunari. Marta Zubiaurre, Luis Arias eta Jose Chazo dira 2015ean sortutako taldearen

gaur egungo kideak eta estilo askotako abestiak jotzen dituzte, “beti ere zentzu batekin eta folk doinu inguratuta”.

Eta egunean, hilaren 22an, abiatuko da lau egun jarraian Euskal Jaiaren mamia osatuko duen aste-buru luzearen programazioa. Egun horretarako ekitaldi bakarra iragarri badute ere, lan bitxia ekarriko digute herrira. “Ombuaren itzala” filmaren proiektzioa eskainiko dute Arrate Kultur Elkarteak 18:30etik aurrera. Gainera, auzolanean sortutako lan horretako ekintzaile nagusiena, Patxi Bisquert aktorea, Eibarren izango dugu berriro ere, lanaren aurkezpena egiteko. Eguzki Art Zinemak Pello Mari Otaño bertsolariaren inguruan egindako pelikula da, gaur egun hainbat tokitan proiektatzen hasi direna.

Afari eta bazkarirako txartelak

Behin hurrengo asteburura helduta, barixakuan Kalian Jolasian, Tanta-



Euskelgak bihar eskainiko du kontzertua Deportiboaren aurrean.

nez Tantan ekimena eta gau aldeko kontzertuek osatuko dute egun horretako egitaraua. Zapatuan artisau eta baserritarren azokak, palako finalak, herri-kiroletako eta bertsolarien emankizunak eta txistu- eta trikipoteoak osatuko dute goiza. Arratsaldera iritsita, hortik aurrera dantzaldia, kale-animazioa, kantu afaria eta gau girotua izango dira. Domekan, azkenik, Euskal Jaiko kalejira eta dantza-jaialdia izango dira goizez, Euskaraldiko amaiera ekitaldiarekin batera. Eta, herri bazkariaren ondoren, erromeriak eta jarraian egingo den larrain-dantzak osatuko dute egitaraua.

Betiko lez, Untzagako karpan egingo diren zapatuko kantu-afarirako eta domekako herri-bazkarirako tiketak lehenbailehen erostea komeni da, antolatzaileei lana errazteaz gain, inor ez dadin kanpoan geratu. Kantu-afariaren prezioa 20 eta 25 euroren artekoa izango da (katering Harakintzaren ardura izango da), eta herri-bazkariarena 15 eta 20 euroren artekoa (katering Bizimiña arduratuko da).



Datorren asteko egunean “Ombuaren itzala” emango dute Arrate Kultur Elkarteak.



Txirristaka Bertsopaper Saria antolatu dute Mendaron

Mendaroko Inleike kultur elkarteak, udalarekin elkarlanean, Txirristaka Bertsopaper Saria antolatu du. Hiru kategoria bereiztuko dituzte, eta bertso-sortak maiatzaren 30era arte aurkeztu daitezke. Gaia librea izango da. Kategoria bakoitzeko bi sari banatuko ditu Mendaroko Udalak: 100 eta 50 euroko kultura bono bi A kategorian; 200 eta 150 euroko bi sari B kategorian; eta 1.000 eta 500 euroko beste bi C kategorian. Kategoria bakoitzari buruzko informazio zehatza eta lehiaketaren oinarriak ikusteko, mendaro.eus webgunera sartu.



Eibartarrek ondo erantzun diote 'Giza Liburutegiari'

Juan San Martin Eibarko Udal Liburutegiak, Eibarko Aniztasun Sailarekin elkarlanean antolatuta, eguazten arratsaldean *Giza Liburutegia* izeneko ekimena hartu zuen Portaleak. Eibarren lehen aldiz egin den saioak oso harrera ona izan du, eta bertan parte hartu zuten hainbat jatorritako eibartarrek beraien bizipenak elkarbanatu zituzten, eta amaieran hainbat herrialde-tako janaria dastatu zuten.



Musika Bandak domekan hasiko du kaleko denboraldia

Eibarko Musika Bandak kaleko denboraldiari eman-go dio hasiera domeka honetan, 12:30ean, Toribio Etxebarria kalean (Antxon parean). Euria eginez gero, udaletxeko arkupeetan joko dute. Kaleko kontzertuekin batera, "erritmo biziagoak" ekarriko ditu Musika Bandak, Andoni Vazquez zuzendariaren berbetan. Horrela, pop-rock doinuak lantzen dituzten taldeen abestiak interpretatuko dituzte: *Eagles Medley* (arr. Tohru Kanayama), *Elthon John in concert* (arr. Don Campbell), *U2 on stage* (arr. Wolfgang Wössner), *The Phil Collins Collection* (arr. Peter Kleine) eta *West side story* (arr. Naohiro Iwai).



'Resistencia Romani' hitzaldia maiatzaren 26an

KERA emakume ijitoen elkarteak Andretxean eman behar zuen *Resistencia Romani* hitzaldia bertan behera geratu zen azkenean, itzalaldi orokorraren eraginez, baina beste egun baterako programatzea lortu dute antolatzaileek: maiatzaren 26an izango da, 18:00etan Andretxean. Hitzaldi honetan ijito herriaren historia ikuspegi feministatik ezagutzera emango da. Eragozpenak barkatzeko eskatuta, herritar guztientzat gonbidapen irekia egin dute.



‘Argazkilaritza Maiatzean’ martxa betean hasi da

Aurreko barixakuan hasi zen *Argazkilaritza Maiatzean* programa, Portalean, Topalekuan eta Deporren ikusgai dauden argazki erakusketen inaugurazioarekin. Goi mailako argazkilarien lanen erakusketak hilaren 26ra arte egongo dira ikusgai, Eibarko Klub Deportiboaren Argazkilaritza Taldearen eskutik. Biharko, berriz, hitzordu bikoitza prestatu dute: 10:00etatik 13:45era *Autopsia de una emocion* izenburuko hitzaldia emango dute Piko Zulueta eta Koldo Mendazak, Portalean (doan). Eta arratsaldean, 17:00etatik 20:30era, *Topaketak Kalean* izeneko hartuko du Untzaga plazak: erretratoak egiteko aukera, erakusketak... egongo dira.



Rouhaifa Kassem palestinarraren erakusketa

Bihar inauguratuko dute Rouhaifa Kassem artista palestinarren margoen erakusketa, Untzagako gizarte zentroan. Eibar Palestinarekin eta Eibarko Gerrarik Ez taldeek antolatu dute *Emakume palestinar baten begirada Euskal Herritik* izenburua duen erakusketa. Maiatzaren 21era arte egongo da zabalik, astegunetan 19:15etik 21:00era, eta 12:00etatik 14:00etara zapa-tuan eta domekan.



Agifes-ek zine-forum saioa antolatu du astelehenerako

Nahasmendu obsesibo-konpulsiboari eta antsietateari buruzko zine-forum saioa egingo du Agifes Buru Osasun Arazoa duten Pertsonen eta Senideen Gipuzkoako Elkarteak, ‘Zinema eta Buru Osasuna’ zikloaren baitan. Astelehenean izango da, 18:00etan Coliseo antzokian, eta *A Real Pain* bi lehengusuren bidaia kontatzen duen komedia dramatiko film emango dute. David (Jesse Eisenberg) nahasmendu obsesibo-konpulsiboa (TOC) eta antsietate orokorra duen mutikoaren eta bere lehengusuaren (Kieran Culkin) istorioa kontatzen du filmak. Ondoren, filmaren mezuan sakontzeko solasaldia egingo da. Sarrera doakoa izango da.

Akuarela master-classa ‘Kubi’-rekin

Eibarko Artisten Elkar-teak akuarelaren inguruko master-classa antolatu du maiatzaren 23rako (barixakua). Jose Luis Lopez Perez *Kubi* bizkaitarrak emango du, 18:30ean Portaleko ikas-taro gelan.



Garagardo dastaketa Basa Gunean



Garagardo dastaketa egingo da datorren egunean (hilak 22) Errebalgo merkatuko Basa Gunean, 18:30etik 20:00etara. Garai Agro Brewery-ren eskutik, sei garagardo ezberdin edango dira. Laguntzeko gazta ezberdinak, bertako ogia eta zizka-mizka ekologikoak egongo dira. Izen-emateak 17 euro balio du (Basa Gunean edo basatopagunea@gmail.com-en).

ZERTXOBAIT ERRAZAGOA

2		6	7				
8	3				5		
	7				5	8	2
4							3
		5	3		8	9	
1							8
3	6		1			4	
		2				3	9
				3	1		7

1	2	3	4	5	6	7	8	9
6	7	8	9	1	2	3	4	5
5	6	7	8	9	1	2	3	4
4	5	6	7	8	9	1	2	3
3	4	5	6	7	8	9	1	2
2	3	4	5	6	7	8	9	1
9	1	2	3	4	5	6	7	8
8	9	1	2	3	4	5	6	7
7	8	9	1	2	3	4	5	6

soluzioa

S
U
D
O
K
U


ZERTXOBAIT ZAILAGOA

3		7			4			5
6		8	5					3
	4				7			
						1	5	8
8	2	3						
			2				7	
7					9	3		4
5			4			6		1

soluzioa

1	2	3	4	5	6	7	8	9
6	7	8	9	1	2	3	4	5
5	6	7	8	9	1	2	3	4
4	5	6	7	8	9	1	2	3
3	4	5	6	7	8	9	1	2
2	3	4	5	6	7	8	9	1
9	1	2	3	4	5	6	7	8
8	9	1	2	3	4	5	6	7
7	8	9	1	2	3	4	5	6

L
A
B
I
R
I
N
T
O
A



BURUA ZERTXOBAIT
ASTINTZEKO ARIKETA

ZAJNTZAILE GEZURTIA ETA EGIATIA

Gela batean zaude. Bi ate ditu, bakoitza zaintzaile batekin. Ate batek askatasunera eramango zaitu, besteak hiltzera. Ez dakizu zein den zein. Zaintzaile batek beti dio egia, besteak beti gezurra. Ez dakizu zein den egia, zein gezurra. Eta aiteetako bat aukeratu behar duzu eta zabaldu, baina galdera bakarra egin diezaiokazu euretako bati. Zer galdetuko zenioke, eta zeini, askatasuna emango dizun atea zein den jakiteko?

Erantzun zuzena eman behar duzu. Erantzun zuzena eman behar duzu. Erantzun zuzena eman behar duzu. Erantzun zuzena eman behar duzu. Erantzun zuzena eman behar duzu. Erantzun zuzena eman behar duzu. Erantzun zuzena eman behar duzu. Erantzun zuzena eman behar duzu. Erantzun zuzena eman behar duzu. Erantzun zuzena eman behar duzu.

Maiatzak 16/22

BARIXAKUA 16

HITZALDIA

18:00 "Paziente bizia" programa. Sarrera librea. Portalea (areto nagusia).

KOMEDIA FEST

20:30 "Palabras mayores" umorezko bakarriketa jaialdia, Alex O'Dogherty-ren eskutik. 25 euro. Coliseo.

ZAPATUA 17

BLOOD BOWL TXAPELKETA

09:00 I Blitzeando con estrellas, Odisea elkartearen eskutik. Errebal Plazaia.

SASKIBALOI EGUNA

09:00/15:00 Eibar Saskibaloiaren jaia. Saskibaloi partiduak, jolasak, musika, txosna... Untzaga.

BIDEZKO MERKATARITZA

10:00/14:30 Bidezko Merkataritzaren Nazioarteko eguna: haurrentzako gunea, produktuen salmenta, dastatzea, zozketak... Egoaizia, Aldatzen eta Proyde Proega GGKE-ek antolatuta. Untzaga.

ARGAZKILARITZA MAIATZEAN

10:00/13:45 "Autopsia de una emocion" hitzaldia, Piko Zulueta eta Koldo Mendazaren eskutik. Doan. Portalea.
17:00/20:30 Topaketak Kalean: erretratoak, argazki-erakusketak... Untzaga.

MUSIKA

12:30 Korala. Ipuruko merkatu plaza.

BISITA GIDATUA

17:00 Doako bisita gidatua erakusketa iraunkorrera, euskaraz.

18:30 Bisita, gazteleraz. Aurretik izena emanda. Armagintzaren Museoa.

BATZAR OROKORRA

18:00 Ezohiko Batzar Orokorra, Goi Argi emakumeen elkarteak bazkideentzat (lehen deialdia 17:30ean). Elkartearen egoitza.

DOMEKA 18

MUSIKA

12:30 Eibarko Musika Bandaren kontzertua. Toribio Etxebarria kalea (euria eginez gero, udaletxeko arkupeetan).

ASTELEHENA 19

FORMAZIOA

09:00/11:00 "Indarkeriaren oinarriko kontzeptuak haurren eta generoaren eskubideen ikuspegitik" gaiari buruzko prestakuntza kultur elkarreentzat. Zain elkartearen eskutik. Portalea.

LIBURU AURKEZPENA

18:00 "Mariokerrak. Nola esan/izan bollera euskaraz" (Txalaparte, 2023) liburuaren aurkezpena. Amaia Alvarez Uribe eta June Fernandez Caseteren eskutik. Sarrera libre. Andretxea.

ZINE-FORUMA

18:00 Zinema eta buru osasuna: "A real pain" filmaren proiektzioa eta solasaldia. Agifese antolatuta. Doan. Coliseo.

MARTITZENA 20

ANTZERKIA

15:00 "Baboom!!" (Xabi Larrea). Debarreneko XL. Eskolarteko Antzerki Erakusketa. Coliseo.

LITERATURA

19:00 Idazlearekin Harixa Emoten: Miren Agur Meaberen "Itzulerak". Portalea (batzartokia).

EGUAZTENA 21

ILLUNABARRIAN

18:30 Itxura pertsonala hobetzen ikasteko saioa, Aitziber Badiolaren eskutik (aurretik izena emanda). ... eta kitto! Euskara Elkartea (Urkizu 11, solairuartera).

EUSKAL JAIA

19:00/21:00 Larraintza dantza errepasoa. Arrateko Andra Mari.

DANBORRADA

19:00 Danborradaren entsegua, haurrentzat.
20:00 Helden entsegua. Beistegi eraikina (Bittor Sarasketa kalea).

DANTZA

19:30 Kaxaren ikasturte amaierako ikuskizuna. Coliseo.

EGUENA 22

ODOL-EMATEA

16:50/20:50 Odola ematera joateko saioa, odol-emateentzat. Untzaga jubilatuta etxea.

EUSKAL JAIA

18:30 "Ombuaren itzala" filmaren proiektzioa, Patxi Bisquertekin. Arrate Kultur Elkartea.

GARAGARDO DASTAKETA

18:30/20:00 Sei garagardo mota. Ekoizleen azalpenak. Gazta ezberdinak, bertako ogia eta zizka-mizka ekologikoak. 17 euro (izena aurretik eman behar da, Basa Gunean, basatopagunea@gmail.com helbidean edo Instagram-en). Basa Gunea (Errebalgo Merkatu Plaza).

HITZALDI-AURKEZPENA

19:00 "Pimu ausarta" ipuin solidarioaren aurkezpena. ASGICER, Gipuzkoa Minbiziaren Aurka elkarteak partaideen eskutik. Portalea (batzartokia).

DANTZA

19:30 Kaxaren ikasturte amaierako ikuskizuna. Coliseo.

ERAKUSKETAK

Maiatzaren 21era arte:

- **ROUHAIFA KASSEM** palestinarren **margolanak**. (Untzaga gizarte zentroa).

Maiatzaren 26ra arte:

- **GRACIA DE LA HOZ, JUAN ANTONIO PALACIOS, JOSE RAMON SAN JOSE eta JOSE CONCEPTES**. (Portalea).
- **Eibarko Klub Deportiboko ARGAZKI TALDEA**. (Topaleku).
- **JOSE CARLOS ROMERO**. (Portalea taberna).
- **ARGIZAIOLA 2024**. (Klub Deportiboa).

Ekainaren 30era arte:

- **"GU ERE BAGARA"**. **Ines Bermejo eta Julen Nafarrete (Lagun Artean)**. (Andretxea).

ZINEA COLISEO

1 ARETOA

- 17an: 19:45, 22:30
- 18an: 20:00

“Bienvenido a la montaña”
KOMEDIA



2024/Italia/112’
Zuzendaria: Riccardo Milani
Aktoreak: Antonio Albanese,
Virginia Raffaele, Sergio Meogrosi
Unibertsitatea/Hezkuntza

2 ARETOA

- 17an: 17:00, 19:45, 22:30
- 18an: 17:00, 20:00
- 19an: 19:30

“Lo que queda de ti”
DRAMA



2025/Espainia/91’
Zuzendaria: Gala Gracia
Aktoreak: Laia Manzanares,
Angela Cervantes, Rui de Carvalho
Nekazal giroa/Musika

ANTZOKIA

- 17an: 17:00, 19:45, 22:30
- 18an: 17:00 (1 Aretoa), 20:00
- 19an: 19:30 (1 Aretoa)

“Una quinta portuguesa”
DRAMA



2025/Espainia/114’
Zuzendaria: Avelina Prat
Aktoreak: Manolo Solo, Maria
de Medeiros, Branka Katic
Thriller/Drama psikologikoa

ANTZOKIA

- 17an: 17:00
- 18an: 17:00

“Kayara. Inka gerraria”
ANIMAZIOA



2025/Peru/90’
Zuzendaria: Cesar Zelada
Abenturak/Umeentzat/
Zibilizazio aurrekolonbiarrak



FUNEUSKADI
Ginpa Asisten

TANATORIO EIBAR

FUNERARIA MUGICA
Funerariak

TANATORIO DIFENSORIO

24 orduko zerbitzu iraunkorra T. 943 201 951
www.funeuskadi.com

Eibar:
Otaola, 27

Eibarko bulegoa:
Bidebarrieta, 20

Elgoibar:
Xorillon, s/n. SIGMA Industrialdea
(Olasoko hilerriaren ondoan)

Ermuako bulegoa:
Marqués de Valdespina, 15

Eibar · Elgoibar · Ermua · Bilbo · Barakaldo · Leioa · Getxo · Sestao
Portugalete · Santurtzi · Basauri · Galdakao

Arrate
Urzuriaga Bollar

6. URTEURRENA
2019/05/14

“Beti izango
zaitugu gogoan”

- ETXEKOAK -

943 20 67 76

aldizkaria@etakitto.eus



Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da **...eta kitto!**-n. Zorion-agurrak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratzen ditugu.



Zorionak, **AITOR!** Eguaztenian 7 urte bete zenduazena eta. Besarkada eta patxo haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, **MAIALEN,** hillaen 21ian 5 urte beteko dozuz eta. Musu haundi bat etxeko guztien partez.



Zorionak, **HELENE,** domekan 6 urte beteko dozuz eta. Musu haundi bat etxeko danon partez.



Zorionak, **MALEN!** Gure etxeko sorgintuak domekan 3 urte beteko dittu! Patxo bana etxekuen eta, batez be, Xabaten partez.



Zorionak, **HUGO,** astelehenean 6 urte egingo dozuzelako. Milloi bat musu hainbeste maitte zaittuen tia Sariren partez.



Zorionak, **MIKEL,** bixar 8 urte beteko dozuz eta. Musu haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, **EDER,** gaur 8 urte egin dozuzelako. Asko maitte zaittugu, txapeldun! Ireni, aita eta ama.



Zorionak, **ZUZA,** martitzenian 18 urte bete zenduazena eta. Besarkada haundi bat kuadrillakuen partez! #joeneskak



Zorionak, **JANIRE,** hillaen 19xan 15 urte beteko dozuz eta. Zutaz haiñ harro gagozen aitta eta amaren partez.



Zorionak, **AITOR** eta **MARKEL.** Musu haundi bana famelixa guztiaren partez.



M^a Isabel Alberdi Zinkunegi

2. URTEURRENA
2023/05/14

"Zure bizipozak eta alaitasunak gudan diraute"

ASKO MAITE ZAITUGU
- ETXEKOAK -





Jose Mari Bedayo Maguregui "Txipi"

2025/05/11

ESKERRIK ASKO
une latz hauetan gurekin
egon zareten lagun eta
famiako guztioi.

- ETXEKOAK -



Iragarki laburrak



943 20 67 76
aldizkaria@etakitto.eus

Atal honetako iragarkiak doan dira, etheen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK, beti ere 4 ASTERAKO, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez.

1. ETXEBIZITZA
1.1. Salgai
1.2. Errentan
1.3. Konpartitzeko
1.4. Etxe trukaketa
2. MOTORRA
2.1. Salgai
3. LOKALAK
3.1. Salgai
3.2. Errentan
4. LANA
4.1. Lan bila
4.2. Langile bila
5. IRAKASKUNTZA
5.1. Eskaerak
5.2. Eskaintzak
6. DENETARIK
6.1. Salgai
6.2. Eman
6.3. Galdu/Aurkitu
6.4. Bestelakoak

1. ETXEBIZITZA
1.2. Errentan
• 2-3 logelako pisua hartuko nuke alokairuan. 653214909.
• Zumaian 3 logelako alojamen- du turistikoa asteka alokagai, uda zein beste edozein urtaro- tan (garajea ere badu). Etxea 2019an guztiz berriztuta. Zumaia erdian dago (Juan Belmonte kalea), baina taberna giroetatik kanpo. 678222229.
2. MOTORRA
2.1. Salgai
• Autokarabana perfilatua sal- gai, oso egoera onean. 2015 urtekoa eta 18.500 km besterik ez. Plaka solarrrak, hotz gailua, ohea irlan etb. 5 laguntza- ko. 48.000€, negoziagarriak. 667376212.
3. LOKALAK
3.2. Errentan
• Garaje partzela alokagai Urki- zuko dorreetan. 609453946.
4. LANA
4.1. Lan bila
• Emakumea eskaintzen da na- gusiak zaintzeko eta garbiket- ak egiteko. 614612521.
• Gizonezkoa eskaintzen da na- gusiak zaintzeko (baita gauze- re) eta etxeko konponketak egiteko. 692808337.
• Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta na- gusiak zaintzeko. 642829497.
• Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, baita asteburuetan ere. Orduka. 632768653.
• Emakumea eskaintzen da na- gusiak zaintzeko. 653214909.
• Emakumea eskaintzen da na-

gusiak zaintzeko eta garbiket- ak egiteko. Baita asteburu- etan ere. 642044618.
• Emakumea eskaintzen da gar- biketarako egiteko. Baita astebu- ruetan ere. 635944602.
• Emakumea eskaintzen da na- gusiak edo umeak zaintzeko. 672965658.
• Emakumea eskaintzen da umeak zaintzeko. 640050714.
• Emakumea eskaintzen da hau- rrak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Baita gauzez ere. 642761117. Paulina.
• Emakumea eskaintzen da arratsalde nagusiak zaintze- ko (ziurtagiri soziosanitarioa) eta garbiketarako egiteko. Baita asteburuetan ere. 631907532.
• Neska eskaintzen da lan egite- ko. Externa. 631418130.
• Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta gar- biketarako egiteko. Orduka. Es- perientzia eta erreferentziak. 632288100.
• Emakumea eskaintzen da na- gusiak zaintzeko eta garbiket- ak egiteko. Orduka. 632768653.
• Emakumea eskaintzen da gar- biketarako egiteko eta nagusiak zaingeko. Orduka. 688655477.
• Emakumea eskaintzen da gar- biketarako egiteko eta nagusiak zaingeko. 697837557.
• Emakumea eskaintzen da nagusiak zaingeko (ziurtagiri soziosanitarioa). Interna, baita orduka ere. 643766267.
• Emakumea eskaintzen da nagusiak zaingeko eta etxeko garbiketarako egiteko. Baita aste- buruetan ere. 624828670.
• Emakumea eskaintzen da na- gusiak zaingeko. Goizez edo gauzez. 602800266.
• Emakumea eskaintzen da nagusiak zaingeko eta gar- biketarako egiteko. Orduka eta asteburuetan. 642223295.

• Emakumea eskaintzen da nagusiak zaingeko eta gar- biketarako egiteko. Orduka eta asteburuetan. 653573290.
• Emakumea eskaintzen da gar- biketarako egiteko eta nagusiak zaingeko. Baita asteburuetan ere. 642084800.
4.2. Langile bila
• Odontologo orokorra behar da Mendarok hortz-klinika batean. Jardun partzial jarraia adostekoa: bi, hiru edo lau egun. Baloratuko da: euskara jakitea eta odontopedia- tria ezagutzak izatea. Bidali curriculum: odonto2025x@ gmail.com
5. IRAKASKUNTZA
5.2. Eskaintzak
• LH, DBH eta Batxilergoko kla- se partikularrak ematen dira. 678937827 eta 943584166. Patrizia.
• Matematika, Fisika eta Kimika klase partikularrak ematen dira LH, DBH, Batxilergo eta Selektibitatea prestatzeko. Gehienez lau laguneko tal- deak. Urteetako esperientzia. 615705945. Iratxe.
• DBH, Batxilergo eta Uniber- tsitateko Matematikak, Fisika, Kimika... klaseak ematen dira. Banakako edo 2-3 ikasleko klaseak. Goizez ikasteko auke- ra. 677592509. Alberto.
6. DENETARIK
6.3. Galdu/Aurkitu
• I-watch erlojua (Iphon-ena) aurkitu dugu mendian. Jabeak 649031990 zenbakira deitu dezake.



EIBAR

Udala | Ayuntamiento

EIBARKO MUSIKA ESKOLA

25-26
IKASTURTERAKO
IZEN-EMATEA

Maiatzaren 12tik aurrera



musikaeskola@musikaeskola.eibar.eus
943702725



Ezagutu gaitzazu hemen:

Facebook/ Instagram/ Youtube



@eibarkomusikaeskola





EGIN AURREMATRIKULA!

Maiatzaren 5etik 23ra

**AUKERARIK ONENA,
ETORKIZUNA DUENA**